

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2012ko EKAINAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko ekainaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

**ALKATEA:** Xabier Mujika Pagola

**ZINEGOTZIAK:** Gotzon Jauregi Sarasola  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea  
Aritz Usandizaga Larrañaga  
Imanol Aranzabal Lasa

Bere ezin etorria azaltzen dute: Karlos Irazu Muñoa eta Jon Tejeria Otermin

**IDAZKARIA:** Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkateorde jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:


- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:  
- 2012ko maiatzaren 10ean egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo Sorozelai 41eskubian egindako ezkutuko obren legeztapen baimena, M.C.G.**
- 4. Fakturak eta ordainketak.**
- 5. Beste batzuk.**
- 6. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

**LEHENENGO PUNTUA**

**ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2012 urteko maiatzaren 10eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **LARRAULGO SOROZELAI 41ESKUBIAN EGINDAKO EZKUTUKO OBREN LEGEZTAPEN BAIMENA, M.C.G.**

Vista la documentación presentada por Doña M.K.G., para la legalización del muro realizado sin previa licencia en Sorozelai nº 41 derecha, es conforme al requerimiento realizado por el Ayuntamiento de Larraul .

Debatido el tema, el Pleno de la Corporación, por unanimidad,

#### ACUERDA:

PRIMERO: Conceder licencia de legalización de las obras clandestinas realizadas sin previa licencia en Sorozelai 41 derecha, debiendo terminar dichas obras, lo antes posible.


SEGUNDO.-Aprobar la correspondiente liquidación de acuerdo con las Ordenanzas fiscales en vigor.

TERCERO.-Dar cuenta del presente acuerdo a la interesada.

### **LAUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

AITZOL	64,96
UROLA	180,12
TOLOSALDEA GARATZEN	120,00
FONGUI	86,23
IZFE	384,11
JOXAN ALTUNA	428,57
MOVISTAR	91,67
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	17,23



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOVISTAR	79,84
GASNATURAL FENOSA	150,33
EUSKALTEL	190,99
IBERDROLA	192,23

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **2.006,75** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **BOSTGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **5.1. LARRAULGO EKOMUSEOA-k AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik, Larraulgo Ekomuseoak aurkezturiko idatzia, non ondorengoa dioen:

“*Kaixo:*

*Joan den astean ohiko bilera bat izan genuen eta eguneko aztergaiaz gain, gai bat mahairatu genuen ustekabeen: **HERRIKO ELIZAKO KANPAIAK.***

*Jakin badakizue gutxi-gehiago gure herriko ondareaz arduratzen garela DINA7n modu batera edo bestera, eta galdera edota eskaera bat egin nahi izan dizuegu idatzi honen bidez:*

*Herriko elizako kanpaiak, berauen funtzionamendua, edo legokeen kasuan aurrerako asmoak, ze egoeratan dauden jakitea benetan eskertuko genuke.*


*Zuen erantzuna ohiko bidetatik jasoko dugulakoan,*

*DINA7 Elkarteak”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: DINA7 Elkarteari jakinaraztea, herriko elizako kanpaien mekanismoa matxuratuta dagoela eta konponbiderik ez duela.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**BIGARRENA:** DINA7 Elkarteari jakinarazi, Larraulgo Udalak, herriko elizako kanpaiak berriro jo dezaten aurrekontu desberdinak eskatu behar dituela, ondoren hauek aztertu eta dagokion erabakia hartuko duelarik.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hauen berri DINA7 Elkarteari ematea.

### **5.2.LARRAULGO SOROZELAI 41 EZKERREKO IPAR-MENDEBALDEKO FATXADAN TXIMINIRAKO TUBO BATEN IRTEERA TEILATURAINO ERAMATEKO OBRA BAIMENA ESKAERA**

Ikusirik I.A.L. jaunak eginiko eskaera, non Sorozelai 41 ezkerreko bizitzeko ipar-mendebaldeko fatxadan tximiniako tubo baten irteera teilaturaino eramateko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Aranzabal zinegotziaren abstentzioarekin, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** I.A.L. jaunak eginiko baimena eskaera onestea, hau da, Sorozelai 41 ezkerreko bizitzeko ipar-mendebaldeko fatxadan tximiniako tubo baten irteera teilaturaino eramateko obra baimena onestea.

**BIGARRENA:** Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

**HIRUGARRENA:** I.A.L. jaunari erabaki honen berri ematea.


### **SEIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ondorengo mozioa aurkezten da:

*“ Tolosaldea Garatzenentzat 2011ko Espainiako aurrekontuetan izendatuta zegoen diru partida Espainiako Gobernuak ekar dezan.*

#### **OSOKO BILKURAN BIDERATZEKO ARRAZOIA:**

*Tolosaldea Garatzenek eskualdeko enpresak laguntzen eta berrikuntzako proiektuak sustatzen urteak daramatza. 2011.urtean hitzartuta zegoen miloi bateko euroko partida izendua ez da iritsi eta, bere ordez, Espainiako Gobernuak ikerkuntza, Berrikuntza eta Garapeneko Estatuko Idazkariaren faxa helarazi du. Diru-laguntza izendu hori ezinbestekoa da 2012an LEHIBERRI ZENTROAREN eraikitze fasea eta berarekin dakarren eta martxan dagoen berrikuntzako proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*bermatzeko. Partida izendu hori berehala jaso ezean, proiektuen bideragarritasun ekonomikoa kolokan geratuko da*

*Guzti hau kontutan harturik, Udalbatzak onar dezan ondorengo proposamena egiten da:*

*1.-Larraulgo Udalak Tolosaldea Garatzenek azken urteetan berrikuntzaren alde egindako lana goraipatzen du eta bide horretan sakontzen jarrai dezala eskatzen dio.*

*2.-Larraulgo Udalak Espainiako Gobernuari hitzartuta zeuden partida izendua Tolosaldea Garatzen-eri helaraztea eskatzen dio. Beraz, Espainiako Gobernuari bere kabuz eta inongo adostasunik gabe hartu berri duen erabakia atzera bota dezala eta izendatuta zegoen dirua lehen bai lehen ekar dezala eskatzen dio.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

**ERABAKITZEN DU.**

**BAKARRA:** Tolosaldea Garatzenentzat 2011ko Espainiako aurrekontuetan izendatuta zegoen diru partida Espainiako Gobernuak ekar dezan mozioa bere osotasunean onestea.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.00 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

**ALKATEA**

**IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA**